

JATETXEA

Proiektu hau Berrobiko eskolako 4 eta 5 urteko ikasleek egin dute.

Proiektuaren azken xedea hau izan da: “ **Jolastuz jatetxeko pertsonaien rol desberdinak ezagutzea** ”. Hiruhilabete baterako lana izan da.

Lan honen helburua izan da ikasle jatetxe batean dauden pertsonai bakoitzaren eginkizunez jabetzea: mahaia zerbitzatu, janaria prestatu, kobratu, ordaindu, menua prestatu, ...

Kontzeptu ezberdinak landu dira: menua, dirua, janariak, edariak, tresnak, jantziak, kantitateak, zifrak,...

Egin diren jardueren artean batzuk hauek izan dira: sailkapenak egin, menuak antolatu, prezioak jarri, dirua erabili, materiala era egokian erabili, jantzi-erantzi, jolastu eta ondo pasa,...

Zenbait ekintza konkretu:

- Jatetxea jartzeko behar diren tresnak eta gauzak arbelean zerrendatu.
- Prestatu, erosi edota etxetik ekarri: mantelak, platerak, kubiertoak, bandejak, edalontziak, jantzi aproposak, dirua, koadernoak, boligrafoa,...
- Jatetxeari izena jarri. Denon artean adostu dugu.
- Menuaren prezioa jarri.
- Sukaldariaren eginkizuna azaldu, adostu: mahaia prestatu, janaria jarri eta sukaldea txukundu
- Zerbitzariaren eginkizuna azaldu, adostu: mahaia prestatu, menua erakutsi eta apuntatu, kobratu eta mahaia jaso.
- Berrobiko jatetxea bisitatu, Mertxe zerbitzariari elkarrizketa egin aurrez prestatutako galderak eginaz.
- Menuen fitxeroa egin: 1go platerak, 2. platerak eta postreak.
- Asteko menuak idatzi, bikoteka eta txandaka (ordenagailura pasa)
- Jatetxeko pertsonai bakoitzari dagokion jantzia jantzi (denon artean erabaki zein arropa)
- Bezeroak, jatetxera joan aurretik dirua prestatu behar du. Prezioak aldatzen joango dira. Kalkuluak egiten joan behar da.
- Asteko menua eta jasotako diru kopurua koadro batean idatzi eta konparaketak egin. Ordenatu: handiena, txikiena...
- Blog-ean eta web orrian idatzi.